

HARRI-JASOTZEA. Beste ahalegina Euskal Selektzioaren Egunean egingo du, ekainaren 3an

Saralegi: «Dantzatu egin nau»

Leitzarrak ezin izan du 330 kiloko koadrotzarra bizkarreratu, birritan saiatu baldin bada ere


Koldo Alduntzin | **DONOSTIA**

«Egina neukan, baina harria bularrean neukala eta hirugarren potea ematean zutik xamar nengo, eta poteak aurrera eraman nau. Horregatik, ez dut asmatzen gelditzen. Egia esateko, dantzatu egin nau», adierazi zuen Miel Saralegik 330 kiloko koadroa altxatu ezinik geratu ondoren, atzo, Orkoien Gure Jokoa pilotalekuan (Nafarroa).

Izan ere, Leitzarrak lehen erronka zuen harri hori jasotzeko; baina bi ahalegin egin arren, askotan gertatu zaion bezala, kontrarioak, harriak alegia, meanean hartu zuen. «Ongi atera dut, bularrean ere nahiko ongi jaso dut, aurreneko potea egokia izan da, bigarrena pittin bat behean geratu zait, ez behar bezala behintzat, eta, hirugarrenak altura bazuen arren, harria joan egin zait»; horrela azaldu zuen Saralegik nola izan zen jasoaldia. Berak esan ohi duen bezala, balantza egin zion aurrera.

Konfiantza osoz jardun zuen

Saralegik 21 minutu eman zituen pilotalekura irten eta 330eko harria jasotzeko lehen ukitua eman zion arte. Denbora horretan ia betikoa egin zuen leitzarrak; tartean, 200 kilokoa birritan jaso eta 250ekoa behin. Aurrez, ordea, aldagelan denbora luzea eman zuen beroketa saioa egiten. Bizikleta estatikoarekin, esate baterako, kasik 40 minutu egin zituela adierazi zuen Iñaki Arratibelek (Saralegiren sendagilea) Euskadi Irratian. Belauna ere lotu zuen, eta gihar luzatze luzeak egin zituen.



CRISTINA ABADIA/EFE

Miel Saralegi 330 kiloko koadroa bularrean duela, baina bizkarreratu ezinik, atzo, Orkoien.

MIEL SARALEGI

Harrijasotzailea

«Lehen potea ona izan da, bigarrena behean geratu da, hirugarrenak altura izan arren, joan egin zait»

Beraz, bi ordu eman zituen saio osoan. «oso prestatuta, eta nahiko seguru plazaratu naiz errekorra ezarriko nuela, 329koa hain ongi leporatzeak halako konfiantza eman baitzidan», gehitu zuen Saralegik. Koinata Daniel Vicente aizkolaria eta Jexuxmari Villabona Txurtxil izan zituen atzo ere laguntzen leitzarrak. Txurtxilek

berebiziko bultzada eman zion harrijasotzaileari, baina ez zen nahikoa izan.

«Entrenamendu askotan ere horrela suertatzen da askotan, eta ea Tolosan Euskal Selektzioaren Egunean lortzen dugun harria menderatzea, dugun prestaketa baliatuta», adierazi zuen Saralegik.

Bigarren ahalegina, alferrikakoa

Aurreneko altxaldian harria gupilera bota eta bigarrenagari ekin arte 8 minutu igaro ziren. Harria izter gainean jarri zuen, baina berriro bota egin zuen. «Nerbioak galduta eta indarrak joanda aritzen zara bigarren altxaldian. Motel egoten zara eta behartuta aritzen zara», aitortu zuen Saralegik.

Bigarren altxaldian behin lortu du leitzarrak marka ontzea, Antzuolan izan zen (Gipuzkoa), 1995eko martxoaren 25ean. Orduan 321eko koadroa leporatu zuen. Azken bost urteotan 5 errekor ezarri ditu nafarrak. «330eko altxatzea badago», adierazi zuen atzo, eta ekainaren 3an ahaleginduko da, Tolosan.

Euskal Herriko harri txikietako Txapelketa, Aian

3 kirolariren arteko dema izango da Aian (Gipuzkoa) jokatu den Euskal Herriko Txapelketan (18:00): Joxerramon eta Jexuxmari Iruretagoiena *Izeta* anaiak eta Javier Valenciano *Zelailuze*. Lau harri erabiliko dituzte, 3 minutuko txandatan.

ARRAUNKETA. Isuntza, Bizkaiko txapelduna, eta Orio txapela eskuratzeko lehiatik kanpo geratu dira

Bermeo, Zumaia, Santurtzi eta Donibaneko Euskadiko trainerilla txapelketako finalera

Ramon Basaldua | **MUNDAKA**

Ezustekoak egon ziren atzo Mundakan jokatu zen Euskadiko trainerilla txapelketako sailkatzeko estropadan. Bermeok, Zumaia, Donibaneko Arraunlariak-ek eta Santurtziko Karmeleko Amak eskuratu zuten gaurko finalean lehiatzeko txartela. Orio eta Isuntza, txapela irabazteko faborito nagusieta-koak, makal ibili ziren atzoko estropadan eta, ondorioz, agur esan diote Euskadiko txapelari.

Isuntzak Bizkaiko txapelketa irabazi zuen aurreko asteburuan, Mundakan, eta Orio izan zen onena Gipuzkoako ligaxkan. Gaur, ostera, ez dira finalean izango.

Bermeoko ontziak egin zuen denborarik onena atzo Mundakan. Bermeotarrek 4 segundo kendu zizkioten Zumaia, 7 Santurtziri eta 8 Donibanekori. Bermeok indartsu ekin zion lehiari eta lehenengo zia bogan 7 segundo kendu zizkion Zumaia. Hirugarren zia bogan bi

ontzien arteko aldea hamar segundokoa zen, baina azkenean lau segundo baino ez zizkion kendu Bermeok Zumaia. Bestalde, azpimarratzekoa da estropada erdian Santurtziren denbora Zumaia baino hobe zela. Orio eta Isuntza txarto hasi eta berdin bukatu zuten. Izan ere, lehenengo zia bogako sailkapena hartuta, ez zeuden lau onenen artean. Orio finalean sartzeko zorian izan zen, baina Donibanekok eutsi egin zion Altxerriren mutilei hirugarren zia

bogan kendu zien hiru segundoko aldeari.

Kontuak kontu, Bermeo, Zumaia, Santurtzi eta Donibaneko lehiatuko dira gaurko finalean eta Portugalete, Orio, Isuntza eta Arkote, federazio sarian. 18:00etan hasiko da gaurko estropada. Bermeo eta Zumaia dira faborito nagusiak eta Santurtzi eta Donibaneko ezustekoa ematen saiatuko dira. Gaitasuna badute behintzat.

Gaspe mailan, Oriok ez zien aukerarik eman aurkariei. 19 segundo kendu zizkion Zarautzi, 24 Santurtziri eta 33 Zumaia. Laurak ariko dira nor baino nor gehiago gaurko finalean.

SASKIBALOA

Finalerdietarako txartela lortu nahi du gaur Tauk, azken partidua behartu gabe

Jon Rejedo | **GASTEIZ**

Denboraldia bukatzeaz egonda, nekea sumatzen hasia da jada jokalarientan. Horregatik, ahalik eta azkarren erabaki nahi du Tau Baskoniak final-laurdenetako kanporaketa. Ostiralean pauso garrantzitsu bat eman ondoren, Dusko Ivanovicen jokalariek ez dute finalerdietan sartzeko aukera gehiago luzatu nahi, eta ostiraleko neurketaren lehen erdiko defentsari eutsiko diote helburua lortzeko.

Saskipean ezarritako gogortasuna erabakigarria izango da, errebotearen garrantzia agerian gelditu baita orain arte ikusitako neurketetan. Reyes anaiek erasoko errebotearen gelditzea gaitza da, Gasteizko taldeak azken unean arazo handirik izan nahi ez badu. Lan horretan bikain jardun zuten azken neurketan Alexanderrek eta Obertok, baina nabarmentzekoa da Tauko hegalekoek izango duten garrantzia.

Kanpoko jokalarien lanak asko erraztu dezake garaipena, kanporaketako azken bi neurketetan garrantzi handiegirik ez baitute hartu. Errebote lanetan laguntzeaz gain, hiruko lerrotik errazago saskiratu behar dute. Ostiraleko hirugarren laurdenean kanpoko jaurtikitetan arazo gehiegi izan zituzten Baskoniako jokalariek, eta taldeak horren beharra du.

Hala ere, Pepu Hernandezen taldeak ez du galdu nahi final-laurdenetako bosgarren norgehiagoka behartzeko aukera, eta dena emango dute beren zaleen aurrean. Carlisle-
ren eraginkortasunaz gain, Vandiverren eta Reyes anaien saskipeko lanaz baliatzeko asmoa izango du Madrilgo taldeak.

Estudiantes-Tau

Txapelketa: ACB Ligako final-laurdenetako laugarren partidua. Aurreko neurketan emaitzak: 104-82; 91-104; 71-76.

Tokia: Kirol Jauregia (Madril).

Ordua: 12:00etan (ETB1).